# BESTELAKO XEDAPENAK

## EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

## 4899

*EBAZPENA, 2019ko urriaren 9koa, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Bizkaiko lurralde-ordezkariarena. Honen bidez iragartzen da zerrendatutako finkak okupatu aurreko aktak egiteko deialdia, hain zuzen ere, «STR Sopuerta, cto, 2 (Galdames)», 13,2 kV-ko linea elektrikorako zuhaitzik gabeko babes-eremuaren eraginpekoak Sopuertako eta Galdameseko udal mugartean. Linea hori I-DE, Redes Eléctricas Inteligentes, SAUren titulartasunekoa da.*

Erref.: IFT/YMM.

Espedientea: 48-AT-I-2017-00030.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Bizkaiko lurralde-ordezkariaren 2018ko martxoaren 19ko Ebazpenaren bidez, aipatutako instalazio elektrikoa onura publikokoa dela deklaratu zen.

Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 55. artikuluan xedatutakoaren arabera, onura publikoko deklaratzeak berekin dakar eraginpeko eskubideak eskuratzea edo ondasunak okupatu beharra, eta, ondorioz, okupazioa premiaz egin beharra, betiere Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan zehaztutako ondorioetako.

Ondorioz, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluarekin bat (1954ko abenduaren 17ko BOE), lurralde-ordezkaritza honek erabaki du eraginpeko eskubideen eta ondasunen jabe eta titularrei deitzea Sopuertako eta Galdameseko udaletxeetara joan daitezen; izan ere, udalerri horietan daude eraginpeko ondasunak. Beraz, hor egingo dira eraginpeko ondasunak okupatu aurretiko aktak eta, beharrezkoa bada, behin betiko okupazioarena.

Eraginpeko ondasunetan edozein eratako eskubideak edo interesak dituzten pertsona titularrak eta horretan bestelako interesik duten gainerako pertsona guztiak joan daitezke bilerara, bai zuzenean, eurak joanda, bai ordezkari bidez, behar bezalako baimena emanda; era batera zein bestera, titulartasuna egiaztatzeko agiriak eraman beharko dituzte, baita kontribuzioaren azken ordainagiria ere. Hala nahi izanez gero, peritu edo notario batek lagunduta ere joan daitezke.

Honekin batera doan zerrendan aditzera emandako egunean eta orduan jasoko dira aktak, eta zitazio-zedularen bitartez emango zaio jakitera titular bakoitzari, non lekua, eguna eta ordua adierazi beharko baitira. Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan xedatutako argitalpenak ere egingo dira.

Halaber, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Araudiko 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, bai interesdunek, bai argitaratutako zerrendetan aipatu ez diren interes errealen edo interes ekonomikoen titularrek, nahi adina alegazio aurkez dezakete, eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrendetan egindako akatsak zuzentzeko, hain justu ere, idazki baten bitartez Bilboko Lurralde Ordezkaritzako bulegoan (Concha Jeneralaren kalea 23, 5. solairua), aldez aurretiko aktak jasotzeko adierazitako egunera arte.

Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 xedatutakoaren arabera, eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluko bigarren arauan xedatutakoaren arabera, iragarki honek hauei jakinarazpena egiteko balioko du: identifikatu gabeko interesdun posibleei, eraginpeko ondasun eta eskubideen titular ezezagunei, eta helbide ezezaguna dutenei.

Bilbao, 2019ko urriaren 9a.

Lurralde-ordezkaria,
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.

# ERANSKINA

AURREKO AKTAK EGITEKO DEIA

«STR Sopuerta, cto, 2 (Galdames)»
13,2 KV-KO LINEA ELEKTRIKORAKO ZUHAITZIK GABEKO BABES-EREMUAREN ERAGINPEKO FINKAK

Esp. AT-I-2017-30 IFT/YMM

| Udaletxea | Lursailaren zenbakia planoaren arabera | Katastroko datuak | | Jabea | Data | Ordua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Poligonoa | Partzela | | | |
| Sopuerta | 1.05 | 5 | 154 | Arechederra Izu María Del Carmen | 2019ko abenduaren 3a | 09:30 |
| Sopuerta | 1.06 | 5 | 137 | Arechederra Izu María Del Carmen | 2019ko abenduaren 3a | 09:30 |
| Sopuerta | 1.08 | 5 | 157 | Arechederra Izu María Del Carmen | 2019ko abenduaren 3a | 09:30 |
| Sopuerta | 1.14 | 5 | 35 | Murua De la Torre Víctor | 2019ko abenduaren 3a | 10:10 |
| Sopuerta | 1.15 | 5 | 34 | Rebollo Bringas Luciano | 2019ko abenduaren 3a | 10:30 |
| Galdames | 2.03 | 16 | 21 | Murua Bilbao Antonio | 2019ko abenduaren 3a | 12:00 |
| Galdames | 2.07 | 16 | 482 | Murua Bilbao Antonio | 2019ko abenduaren 3a | 12:00 |
| Galdames | 2.08 | 16 | 473 | Murua Bilbao Antonio | 2019ko abenduaren 3a | 12:00 |
| Galdames | 2.12 | 16 | 463 | Murua Bilbao Antonio | 2019ko abenduaren 3a | 12:00 |
| Galdames | 2.19 | - | - | Galdameseko Udala | 2019ko abenduaren 3a | 13:00 |
| Galdames | 2.20A | 20 | 69 | Galdameseko Udala | 2019ko abenduaren 3a | 13:00 |
| Galdames | 2.37 | 18 | 4 | Galdameseko Udala | 2019ko abenduaren 3a | 13:00 |
| Galdames | 2.52M | 19 | 509 | Galdameseko Udala | 2019ko abenduaren 3a | 13:00 |
| Galdames | 2.58M | 009-01 | 2 | Galdameseko Udala | 2019ko abenduaren 3a | 13:00 |
| Galdames | 2.70 | 13 | 132 | Galdameseko Udala | 2019ko abenduaren 3a | 13:00 |
| Galdames | 2.88M | 14 | 203 | Galdameseko Udala | 2019ko abenduaren 3a | 13:00 |
| Galdames | 2.09 | 16 | 471 | De la Torre Saracho David | 2019ko abenduaren 5a | 09:30 |
| Galdames | 2.13 | 16 | 238 | Rebollo Bringas Luciano | 2019ko abenduaren 5a | 09:50 |
| Galdames | 2.33 | 17 | 59 | Ortiz Hurtado Isidro | 2019ko abenduaren 5a | 10:10 |
| Galdames | 2.36 | 17 | 62 | Hormazabal García Genaro | 2019ko abenduaren 5a | 10:30 |
| Galdames | 2.40 | 17 | 80 | Hormazabal García Genaro | 2019ko abenduaren 5a | 10:30 |
| Galdames | 2.47 | 18 | 82 | Zunzunegui Echevarria Juan | 2019ko abenduaren 5a | 11:00 |

| Udaletxea | Lursailaren zenbakia planoaren arabera | Katastroko datuak | | Jabea | Data | Ordua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Poligonoa | Partzela | | | |
| Galdames | 2.50 | 18 | 81 | Zunzunegui Echevarria Juan | 2019ko abenduaren 5a | 11:00 |
| Galdames | 2.51 | 18 | 108 | Zunzunegui Echevarria Juan | 2019ko abenduaren 5a | 11:00 |
| Galdames | 2.53 | 19 | 524 | De Miguel Jiménez Ángel | 2019ko abenduaren 5a | 11:40 |
| Galdames | 2.61 | 18 | 138 | Otaola Díaz Felicia | 2019ko abenduaren 5a | 12:00 |
| Galdames | 2.66 | 18 | 233 | Martínez De la Torre Ángel | 2019ko abenduaren 5a | 12:20 |
| Galdames | 2.75 | 13 | 82 | Martínez De la Torre Ángel | 2019ko abenduaren 5a | 12:20 |
| Galdames | 2.72 | 13 | 113 | Martínez Lamiquiz M Jesús | 2019ko abenduaren 5a | 12:50 |
| Galdames | 2.82 | 11 | 442 | Ureta Soleguia José María | 2019ko abenduaren 5a | 13:10 |
| Galdames | 2.71 | 13 | 311 | Ezezaguna | 2019ko abenduaren 5a | 13:30 |